# BizkaiaGara

# EGUNA2023

*Eginez izan · Tiempo de acción*

# ZERTAN DATZA?

BizkaiaGara Eguna **herritarrei egindako deia** da, Bizkaiko lurraldea kolektiboki hobetzeko inguruneak duen beharrari erantzuteko asmoarekin sortzen dena.

Oraingo honetan, **gure naturguneen garbiketarekin lotutako ingurumen-ekintza** bat da proposamena. Zabor-bilketa bat eginez, naturaren zaintzarekin dugun konpromisoa aktibatuko dugu.

BizkaiaGara
EGUNA2023

# NOIZ IZANGO DA?

Igandea, **ekainak 11**

Familientzako, taldeentzako, koadrilentzako... eguna, aktibatzeko, kontzientziatzeko, gozatzeko eta zerbait handiaren parte izateko.

Ingurumenaren Munduko Eguna dela eta (ekainaren 5a), plastikoek kutsatzen ez duten planeta baten aldeko munduko mugimenduarekin bat egiten dugu.

#EginezIzan
#BizkaiaGaraEguna2023
#SinContaminaciónPorPlásticos

BizkaiaGara
EGUNA2023



13 ACCIÓN POR EL CLIMA

# NON IZANGO DA?

## URKIOLAko parke naturalean

URKIOLA **ingurune natural enblematikoa da bizkaitarrentzat.** Gune pribilegiatua, pagadi eta haritzen arteko paseoez gozatu nahi dugunean, Anbotoko gailurrera igotzeko erronka hartzen dugunean edo Santutegia bisitatzen dugunean.

Maite dugun parkea da, eta horregatik zaindu behar dugu beti, **asko baitira pertsonok sortzen ditugun eta naturan abandonatzen ditugun hondakinak**, ingurumen-ekosistemetan ondorio larriak dituztenak.

BizkaiaGara
EGUNA2023



# NORK EGITEN DU DEIALDIA?

BizkaiaGara Eguna **BizkaiaGara**-ren ekimena da, BizkaiaGara Bizkaiko Foru Aldundiak, BBK-k eta EDE Fundazioak sustatutako proiektua izanik.

BizkaiaGara-ren helburua da **gizarte-eremu guztietatik** (ingurumena, kultura, gizartea, kirola...) **eta eragile guztietatik** (erakundeak, taldeak, enpresak, erakundeak, pertsonak, ikastetxeak eta unibertsitateak) **bultzatutako proiektuak aktibatzea**, **laguntzea eta konektatzea**, gure lurraldea **herritarren parte-hartze aktiboaren bidez hobetzen lagundu nahi duten proiektuak**, hain zuzen ere.

BizkaiaGara
EGUNA2023

Bizkaia foru aldundia diputación foral
EDE FUNDAZIOA
bbk

# ZEIN IZANGO DA PLANNING-a?

**9:00-10:00** Autobus 'lanzadera')Durangotik (aukerakoa)

**9:30-10:30** Materialen banaketa eta taldeen antolaketa

**10:30-10:45** Parte hartzaileei harrera

**10:45-12:30** Hondakinak batzeko ekimena

**12:30-13:00** Batutako hondakinen banaketa eta birziklaia

**13:00-15:00** BizkaiaGara Guneko ekintzak (musika, ingurumen-sentsibilizazio tailerrak, janaria,...)

**15:30-16:30** Autobusen irteera Durangorantz (aukerakoa)

BizkaiaGara
EGUNA2023

# ZELAN PARTE HARTU DEZAKET?



**ZABALTZEN, LAGUNTZEN, AKTIBATZEN**

.- Gorde eguna ekainaren 11n eta zoaz Urkiolara. **Etor zaitez!**

.- Zabaldu ekimena zure harreman-sarean eta animatu zureak parte hartzera.

.- Zure erakundeak edo enpresak interesik gabe lagundu nahi badu, helaraz iezaguzu zure proposamena eguna@bizkaiagara.eus helbidera.

**EGINEZ IZAN!** Martxan jartzeko, konektatzeko eta konpromisoa hartzeko garaia da. **IZENA-EMAN!**

Dena leku berean hasten delako: PERTSONENGAN

BizkaiaGara
EGUNA2023
*Eginez izan · Tiempo de acción*

# HARREMANETARAKO

eguna@bizkaiagara.eus

www.bizkaiagara.eus

94 416 15 11

BizkaiaGara
EGUNA2023